Proiektu honen interesa bikoitza da. Batetik, zientzien, teknologiaren, gizakiaren, eta abarren gaineko ezagutzaren gizarte hedapena erraztuko da. Ezagutzak hedatzeak kultur interes zalantza ezina du, gizarte ireki, aske eta tolerantearen oinarriak sendotzen laguntzeaz gain. Bestetik, euskara dibulgazio xedea duen goi-mailako ezagutza komunikatzeko erabiltzeak eraginkortasunez lagunduko du haren erabilera normalizatu eta zabaltzen, haren agerpena txikia den komunikazio eremu eta kultur inguruneetan. Horrela, euskaraz hitz egiten duten biztanleen multzo zabalek hizkera jaso eta landuetara iristeko aukera izango dute.

"IRRIKA" ekimena "ZIO proiektuaren" zati bat da, euskarazko komunikazioaren eta hedapenaren proiektua. Haren barruan, gainera, "ZIO bilduma" egongo litzateke, eta egun bezala argitaratzen jarraituko da, urtean bi bolumen ateraz, egungo baldintza berdinak betez. Hori dela-eta, hitzarmen honen babesean garatuko den lankidetza IRRIKA ekimenari berariaz dagokiona izango da.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak, Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Elhuyar Fundazioak lankidetza hitzarmena sinatzea adostu dute. Haren xedea goi-mailako ezagutzak euskaraz barreiatzea izango da euskal herritarren artean, eta gazteen artean bereziki. Horretarako, "IRRIKA" ekimena garatuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailako nahiz Batxilergoko ikasleei zuzendua.

Arabako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak, 2008ko ekainaren 3an egindako bileran, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen, Eusko Jaurlaritzaren, Arabako Foru Aldundiaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Elhuyar Fundazioaren arteko lankidetza hitzarmena sinatzea onartu du, eta, Arabako Foru Aldundiaren Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa arautzen duen Foru Arauaren 6.1.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Arabako Biltzar Nagusiek adierazitako akordioa berretsi dute.

Martxoaren 14ko 20/89 Foru Arauan ezarritakoan oinarrituz, Biltzar Nagusiek Hitzarmenak izapidetzearen eremuan izango duten funtzionamendua araupetzen duen Arautegiaren 127. artikulua aldarazteari buruzkoa (bigarren ataleko II. kapituluko VI. titulua),

ARTIKULU BAKARRA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen, Eusko Jaurlaritzaren, Arabako Foru Aldundiaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Elhuyar Fundazioaren arteko lankidetza hitzarmena berretsi egiten da. Haren xedea goi-mailako ezagutza euskaraz hedatzea da euskal herritarren artean, eta batez ere gazteen artean IRRIKA ekimenaren bitartez. Horretarako, Diputatuen Kontseiluak bere akordioan zehaztutako baldintzak beteko dira.

Vitoria – Gasteiz, 2008ko ekainaren 30a.– Lehendakaria, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

El interés de este proyecto es doble. Por una parte facilitará la difusión social del conocimiento científico, tecnológico, humanístico, etc. La divulgación del conocimiento tiene indudable interés cultural, además de contribuir a fortalecer las bases de una sociedad abierta, libre y tolerante. Por otro lado, la utilización del euskara para la comunicación del conocimiento de alto nivel con fines divulgativos, contribuirá de forma efectiva a normalizar y extender su uso en ámbitos comunicativos y entornos culturales en los que su presencia es aún minoritaria. De este modo facilitará el acceso de amplias capas de la población vasco hablante a registros cultos y elevados de la lengua.

La iniciativa "IRRIKA" es parte del "Proyecto ZIO", proyecto de comunicación y extensión del conocimiento en euskera, integrado además por la "Colección ZIO", que se seguirá editando al ritmo actual de dos volúmenes por año y bajo las mismas condiciones que en la actualidad. Por ello, la colaboración que se desarrollará al amparo del presente convenio es la relativa específicamente a la iniciativa IRRIKA.

La Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, el Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Alava, la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Fundación Elhuyar, han acordado la suscripción de un Convenio de Colaboración, cuyo objeto sea el de divulgar el conocimiento de alto nivel en euskara entre la ciudadanía vasca, y especialmente entre la juventud. Para ello se desarrollará la iniciativa "IRRIKA", dirigida al alumnado de 3º y 4º curso de Enseñanza Secundaria Obligatoria y de Bachillerato en la Comunidad Autónoma Vasca.

El Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Álava, en sesión celebrada el 3 de junio de 2008, ha acordado la suscripción de un Convenio de Colaboración entre la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Gobierno Vasco, Diputación Foral de Álava, Diputación Foral de Gipuzkoa y la Fundación Elhuyar, y de conformidad con lo previsto en el artículo 6.1.2 de la Norma Foral de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava, procede la ratificación de dicho Acuerdo por las Juntas Generales de Álava.

En base a lo dispuesto en la Norma Foral 20/89, de 14 de marzo, sobre la modificación del artículo 127, sección segunda, Cap. II, Título VI, del Reglamento de Funcionamiento de las Juntas Generales en lo que a tramitación de Convenios se refiere,

ARTÍCULO ÚNICO

Se ratifica el Convenio de Colaboración entre la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Gobierno Vasco, Diputación Foral de Álava, Diputación Foral de Gipuzkoa y la Fundación Elhuyar, cuyo objeto es el de divulgar el conocimiento de alto nivel en euskara entre la ciudadanía vasca, y especialmente entre la juventud, iniciativa IRRIKA, en los términos acordados por el Consejo de Diputados en su Acuerdo.

Vitoria- Gasteiz, 30 de junio de 2008.– El Presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**4640**

**13/2008 Foru Araua, ekainaren 30ekoa, Arabako Lurralde Historikoaren Bandera eta Armarriari eta Foru Aldundiaren Komunikazio Logotipoari buruzko maiatzaren 5eko 14/1993 Foru Araua bigarren aldiz aldatzekoa.**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2008ko ekainaren 30ean egindako Osoko Bilkuran ondoko Foru Araua onetsi dute:

13/2008 Foru Araua, ekainaren 30ekoa, Arabako Lurralde Historikoaren Bandera eta Armarriari eta Foru Aldundiaren Komunikazio Logotipoari buruzko maiatzaren 5eko 14/1993 Foru Araua bigarren aldiz aldatzekoa.

ZIOEN ADIERAZPENA

Arabako Biltzar Nagusiek, hasiera batean 1984ko abenduaren 20ko Foru Arauaren bidez, Arabako Lurralde Historikoaren bandera eta armarriaren diseinua eta erabilera baldintzak onartu ziren, haien ezaugarriak finkatzeko eta agerpen grafikoa bateratzeko asmoz.

Gero, 14/1993 Foru Arauak, maiatzaren 5ekoak, Arabako Lurralde Historikoaren bandera eta armarriari eta Foru Aldundiaren komunikazio logotipoari buruzkoak, zehaztasun handiagoz finkatu zituen

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**4640**

**Norma Foral 13/2008, de 30 de junio, de segunda modificación de la Norma Foral 14/1993, de 5 de mayo, sobre la Bandera, el Escudo del Territorio Histórico de Álava y el Logotipo Comunicacional de la Diputación Foral.**

Las Juntas Generales de Álava en su Sesión Plenaria celebrada el día 30 de junio de 2008, han aprobado la siguiente Norma Foral:

Norma Foral 13/2008, de 30 de junio, de segunda modificación de la Norma Foral 14/1993, de 5 de mayo, sobre la Bandera, el Escudo del Territorio Histórico de Álava y el Logotipo Comunicacional de la Diputación Foral.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Las Juntas Generales, inicialmente mediante Norma Foral de 20 de diciembre de 1984, aprobaron el diseño y las condiciones de uso de la bandera y el escudo del Territorio Histórico de Álava con el objeto de fijar características y unificar su representación gráfica.

Posteriormente, la Norma Foral 14/1993, de 5 de mayo, sobre la bandera, el escudo del Territorio Histórico de Álava y el logotipo comunicacional de la Diputación Foral de Álava, procedió a esta-

lurralde historikoaren nortasun ikurren diseinu eta erabilera ezaugarriak, haiek ordezkaritza eta protokolozko erabilereratako erreserbatu zituen, eta komunikazio logotipo bat sortu zuen –aldi berean horren ezaugarri nagusiak finkatu zituelarik-, foru sektore publiko osoko organoen eta zuzendaritza eta administrazio unitateen erakunde irudia era sinple eta soilagoetara egokitzeko, horien begi pertzepzioa eta identifikazioa erraztearren.

Diputatuen Kontseiluak, maiatzaren 18ko 133/93 Foru Dekretuaren bidez, aipatutako Foru Arauaren 8. artikuluan emandako ahalmenaz baliatuz, komunikazio armarriaren diseinua onartu zuen. Arabako Foru Aldundiaren administrazio jardueraren ikurra den armarri horren erabilera eta diseinu arloko aplikazioa Arabako Foru Aldundiaren Erakunde Nortasunaren Eskuliburuan jasotako arauetan xedatu zen (Eskuliburua azaroaren 23ko 173/93 Foru Dekretuaren bidez onartu zen eta martxoaren 12ko 30/1996 Foru Dekretuak eta abenduaren 9ko 105/98 Foru Dekretuak aldatu zuten).

Erakunde irudia tresna bizia eta dinamikoa denez gero, haren diseinuaren gutxienezko edukia, maiatzaren 5eko 14/1993 Foru Arauan finkatua, eta aipatu diren xedapenetan Foru Arauak garatua, une bakoitzeko inguruabarretara moldatzeko gaitasunerako muga hertsi eta zurrun bilakatu da. Hura ezarri zenetik igarotako urteetako esperientzia kontuan izanik, komenigarria da araua aldatzea muga hori ezabatzeko eta foru gobernuari berak zuzentzen duen administrazioaren irudia askatasunez eta bere erantzukizunaren pean diseinatzen uzteko. Horrela, saihestu ahal izango dira lehengo garaietan egindako komunikazio ekintza batzuk, nortasun ikur edo marka bereziak erabili zituztenak, logotipo ofiziala alde batera utzita, komunikazio estrategietan haiek eraginkorragotzat jotzen baitzituzten kanpainen helburuak erdiesteko. Gainera, kontuan hartu behar dira foru administrazioaren sail, organismo eta sozietate publikoetatik erakunde irudia gaurkotu eta egokitzearen alde egindako iradokizunak, eta beharrezkoa da berriro ere Aldundiaren erakunde identifikazioaren homogeneotasun handiagoa lortzen saiatzea.

Horren ondorioz, foru arau honek foru administrazioaren eta foru sektore publikoko antolakundeen komunikazio logotipoa eta erakunde irudia inolako mugarik gabe zehazteko eskumena aitortzen dio Foru Aldundiari, bere burua antolatzeko duen ahalmenaren barruan.

ARTIKULU BAKARRA

Arabako Lurralde Historikoaren bandera eta armarriari eta Arabako Foru Aldundiaren komunikazio logotipoari buruzko maiatzaren 5eko 14/1993 Foru Arauaren 8. artikulua aldatzen da. Honela egongo da idatzita:

“Diputatuen Kontseiluak, aldez aurretik Biltzar Nagusietako Batzorde eskudunari galdetu ondoren, Foru Dekretu bidez onartu ahalko du Erakunde Nortasunaren Eskuliburuaren barruan, komunikazio logotipo bat Arabako Foru Aldundiaren Sailetako zuzendaritza, zerbitzu, atal eta bulegoek eta haren organismo eta sozietate publikoek erabiltzeko.

Erakunde Nortasunaren Eskuliburuan komunikazio logotipoaren diseinua, ezaugarriak eta erabilera baldintzak finkatuko dira”.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Kendu egingo da Arabako Lurralde Historikoaren Bandera eta Armarriari eta Foru Aldundiaren Komunikazio Logotipoari buruzko maiatzaren 5eko 14/1993 Foru Arauaren Zioen Adierazpenaren seigarren paragrafoa.

ALDI BATERAKO XEDAPENA

Foru Arau honetako artikulu bakarrean aipatzen den erakunde nortasunaren eskuliburu berria onartzen ez den bitartean eta, hala badagokio, onartzen duen Foru Dekretuak ezartzen duen aldian, maiatzaren 18ko 133/93 Foru Dekretuaren bidez onartutako komunikazio logotipoa erabiltzen jarraituko da.

AZKEN XEDAPENA

Foru Arau hau Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu osteko egunean sartuko da indarrean.

Vitoria –Gasteiz, 2008ko ekainaren 30a.– Lehendakaria JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

blecer con mayor precisión las características de diseño y utilización de los signos de identidad del Territorio, a reservarlos para usos representativos y protocolarios, y a crear un logotipo comunicacional –estableciendo al mismo tiempo sus principales características- para adaptar la imagen corporativa de los órganos y unidades directivas y administrativas de todo el sector público foral a formulas mas simples y sencillas para facilitar su percepción e identificación visual.

El Consejo de Diputados, mediante Decreto Foral 133/93 de 18 de mayo y en ejercicio de la facultad conferida en el artículo 8 de la mentada Norma Foral, aprobó el diseño del escudo comunicacional, símbolo de la actividad administrativa de la Diputación Foral de Álava, cuyo uso y aplicación en el campo del diseño se dispuso en las normas contenidas en el Manual de Identidad Corporativa de la Diputación Foral de Álava, aprobado por el Decreto Foral 173/93 de 23 de noviembre y modificado por los Decretos Forales 30/1996 de 12 de marzo y 105/98 de 9 de diciembre.

Al ser la imagen corporativa un instrumento vivo y dinámico, el contenido mínimo de su diseño, establecido en la Norma Foral 14/1993, de 5 de mayo, y desarrollado por la Diputación Foral en las disposiciones mencionadas, ha llegado a ser un límite rígido y riguroso a su capacidad de adaptación a las circunstancias de cada momento. La experiencia de los años transcurridos desde su implantación aconseja la modificación de la Norma para suprimir esta limitación y permitir al Gobierno Foral que diseñe libremente y bajo su responsabilidad la imagen de la Administración que dirige. De esta manera se podrán evitar algunas de las acciones de comunicación realizadas en tiempos pasados que han utilizado marcas o signos de identidad propios, prescindiendo del logotipo oficial, porque las estrategias de comunicación los consideraban más eficaces para la consecución de los objetivos de las campañas. Además es oportuno atender las sugerencias recibidas desde los distintos Departamentos, Organismos y Sociedades Públicas de la Administración Foral en el sentido de modernizar y adaptar la imagen corporativa y es necesario intentar de nuevo una mayor homogeneidad de la identificación corporativa de la Diputación.

En consecuencia, la presente Norma Foral reconoce a la Diputación Foral, dentro de su capacidad de autoorganización, la competencia para determinar, sin limitación de ningún tipo, el logotipo comunicacional y la imagen corporativa de la Administración Foral y de las organizaciones del sector público foral.

ARTÍCULO ÚNICO

Se modifica el artículo 8 de la Norma Foral 14/1993, de 5 de mayo, sobre la bandera, el escudo del Territorio Histórico de Álava y el logotipo comunicacional de la Diputación Foral de Álava que quedará redactado como sigue:

“El Consejo de Diputados, previa consulta a la Comisión competente de las Juntas Generales, podrá aprobar, mediante Decreto Foral, dentro del Manual de identidad corporativa, un logotipo comunicacional para su utilización por las Direcciones, Servicios, Secciones y Negociados de los distintos Departamentos de la Diputación Foral de Álava y por sus Organismos y Sociedades Públicas.

El Manual de identidad corporativa establecerá el diseño, las características y condiciones de utilización del logotipo comunicacional”.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Se suprime el párrafo sexto de la Exposición de Motivos de la Norma Foral 14/1993, de 5 de mayo, sobre la Bandera, el Escudo del Territorio Histórico de Álava y el Logotipo Comunicacional de la Diputación Foral.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

En tanto no se apruebe el nuevo Manual de identidad corporativa a que se refiere el artículo único de esta Norma Foral y, en su caso, durante el periodo que se establezca en el Decreto Foral de aprobación, se seguirá utilizando el logotipo comunicacional aprobado por Decreto Foral 133/93, de 18 de mayo.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Norma Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, 30 de junio de 2008.– El Presidente, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.